

# Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren esperientzia

## Udalerriz gaindiko parte-hartzearen aldeko erakundea eta bestelako apunte transzendentalak

Jurgi San Pedro Guillem  
Zuzenbidean Lizentziatua. UEUko kidea

Artikulu honen euskarria UEUko Soziologia sailak, Miarritzen, 2004ko uztailaren 6 eta 7an eta “Demokrazia parte-hartzailea” izenburupean antolatutako mintegien barruan eman nuen hitzaldia da. Mintegiotan neure iritzia zabaltzeko eta hurbilen ezagutzen dudana hitz egiteko aukera eman zidaten. Artikulu honek garbi utzi nahi diren mezuak babestuko dituelakoan, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren euskal erakundetze-prozesuak Euskal Herria osoan zehar luraren defentsan jarduten dugunoi eskaintzen dizkigun aukera estrategikoez —bere *hub efektu potentziala*— hausnarketa zabal bat ondorioztatzeaz aparte, gaur egun denona den Biosfera Erreserba mundial horren inguruko hurbilketa ere egingo dugu bere status juridiko-publikoaren gorputzaren deskribapenatik hasita. Gero, lege-gorputz horrek zilegitutako *parte-hartzearen* eguneroko dinamiken ikerketen inguruko iritzia ere azalduko dugu, non kritika ezinbestekoa suertatuko baita, eta egungo adierazle esanguratsu batzuek komunikatzen digutena argudio kritiko horien oinarri izango da, nahiz eta ageriko eta sinplea izan.

The basis of this article is a talk that I gave in the seminar held under the name “Participatory Democracy” by the Department of Sociology of the Summer Basque University in Biarritz on July 6 and July 7, 2004 in which I was afforded the opportunity to give my opinion and to talk about what I have come to know first hand. In the supposition that the messages aiming to make it clear will be further enhanced by this talk, besides offering a broad reflection on the strategic opportunity —its *potential hub effect*— afforded to those of us working to defend the land throughout the Basque Country in providing for a process of a Basque institutionalization of the Urdaibai Biosphere Reserve, we will start off by describing the body of laws regarding of the juridical-public status of the world Biosphere Reserve which belongs to us all today. Further on, this body of laws will also account for the opinion regarding research into the everyday dynamics of licit *participation* which will inevitably give rise to criticism and will be the basis of those critical arguments which some significant indicators show us despite their being straightforward and simple.

## 1. Urdaibaiko Biosfera Erreserba Udalerriz gaindiko status juridiko-politiko berezitu eta abangoardista baten sorrera.

Nazioartean UNESCOren aitzindaritzaz martxan den *Gizakia eta Biosfera* izeneko programa ekologoak (*Man & Biosphere Programme*) gure tokiko udalerriz gaindiko araudi publikoan eragina izan zuen 1984. urteaz geroztik, nahiz eta lehenagoko herri-aldarrikapenei esker eragin hori posible bilakatu. Eta, eragin horren isla, egun, Lurralde eta Gizarte Antolaketari lotutako toki-araudi estrategikoetan dagoela ziurta dezakegu erreparorik gabe.

1989. urtean Eusko Legebiltzarrak aho batez —gutxitan gertatzen den bezala— *Urdaibai Biosfera-Gebenaldea Babestu eta Antolatzeari buruzko Legea* onetsi zuen (5/1989 Legea, uztailaren 6koa, EHAA 145. zk.), aurrerantzean bidezkoa izan behar zukeena definituko zuen Lege bera.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren tokiko sorrerako Legeak dioenez, bere babes-objektua testuinguru sozioekologiko definitu bat da, hitz gutxitan, gizarte eta ekosistema anitzen talde bat. Horrenbestez, berau babestean eta zuhurki kudeatzean datza Urdaibaiko Biosfera Erreserban ezarritako programazio publikoaren zeregina.

UNESCOren programan oinarrituta arestian aipatutako toki-araudiak Urdaibaiko Biosfera Erreserbak berean hartzen dituen 22 euskal udalerrri bizkaitar hartzen ditu, eta, udalerrri horien lurraldeari dagokionez, lur ez-hirigarrien eremu juridiko-urbanistikoen *lurralde-erabilerei* eragiteaz aparte, bere eremuan biltzen den gizarte-garapena ere programatzen du.

Nazioarteko programa honek munduan zehar eratu duen Biosfera Erreserba sarearen estrategia berfinkatu zuen 1995. urtean UNESCOren biltzar orokorrak, 28C/2.4 ebazpenaren bitartez eta “Sevillako Estrategia” izenaz hobeto ezagutzen denaz. Estrategia horren edukia gure tokiko araudiaren parte ere bada, berori interpretatzeko baliagarria baino ez bazaigu ere. Bada, estrategia horren 3. atalak dioenez:

Biosfera Erreserbak, ondoren aipatzen diren hiru funtzioz konbinatuaz, zaintzarako eta garapen iraunkorrerako metodoak eskualde mailan saiatzeko eta egiaztatzeko aparteko tokiak izaten saiatuko dira:

- i. Kontserbazioa: paisaiak, ekosistemak, espezieak eta aldaki genetikoak zaintzen lagundu.
- ii. Garapena: ikuspegi soziokultural eta ekologikotik ekonomiaren eta gizakiaren garapen iraunkorra sustatu.
- III. Laguntza logistikoa: ingurumenari buruz egiten diren erakuste, hezte eta gaitze proiektuei laguntza eman, bai eta zaintza eta garapen iraunkorraren gaiei buruz, toki, eskualde, nazio eta mundu mailan egiten diren ikerketa eta behaketa iraunkorreko proiektuei ere.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbari aitortutako misioa arestian aipatutako zutabeek markatuko dute, tokiko udalerriz gaindiko araudiak bereak ere egingo dituenak.

Bere eraginpeko udalerrriak hauexek dira: Arrieta, Arratzu, Ajangiz, Elantxobe, Gauegiz-Arteaga, Nabarniz, Ereño, Gernika-Lumo, Errigoiti, Bermeo, Mendata, Morga, Mundaka, Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz, Sukarrieta, Busturia, Amorebieta-Etxano, Murueta, Forua, Kortezubi, Ibarrangelu eta Muxika.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbak 264 kilometro karratu hartzen ditu, eta ia 45.000 biztanleren ongizatea aintzat hartzen du, bere garapenaz *arduratuta-edo*, eta ezartzen duen proiektu holistiko iraunkorraren alde.

1989. Lege honek bere helburuak gauzatzeko aurreikusten duen tresneria legal konplexua eta *biribildua* izango du eta aurrerantzean lur-eremu eta udalerriz gaindiko maila honetan balio erantsi estrategikoa izango dutenak hauexek dira:

a. 1993.eko urtean, 242/1993 Dekretua, abuztuaren 3koa, onartzen da. *Urdaibai Biosfera Erreserbako Erabilera eta Kudeaketarako Egitamu gidaria* ezartzen duena<sup>1</sup>.

Urdaibaiko legea gauzatzeko garapen-tresna honek ondorengo zehaztapen hauek aurreikusten ditu:

1. Erreserbaren antolaketa- eta erabilera-arteak (zuzentaru) orokorrak ezartzen ditu.
2. Berezko balioak babesteko, berreskuratzeko, zaintzeko eta iraunarazteko beharrezko kudeaketa eta jarduketa-erakundeak ezartzen ditu.
3. Erreserbaren zonifikazioa, erabilera eta helburu ezberdinetako eremuak mugatuz, eurentzako babes-maila ezberdinak eta baimen/debekuen jaurbidea ezarri; baliabide naturalen eta hirigintzaren xedapenak.

b. 1998. urtean, 258/1998 Dekretua, irailaren 28koa, *Urdaibaiko Biosfera-Erreserbaren Jarduera Sozio-ekonomikoen Egokitzapenerako eta Garapenerako Egitaraua (JASEGE)* ezartzen duena. Egitarau hau eskualdeko *Tokiko Agenda 21*tzat hartzen da, hain zuzen ere.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren sorrerako legearen garapenerako tresna honen deskribapen laburra hauxe izango litzateke:

JASEGEk sustatzen duen garapen-eredua helburu estrategikoetan (5) eta estrategietan (10) edo gida-lerro handietan gauzatzen den legezko tresna da, horiek sektore askotara iritsi eta helburu nahiz tresnen arteko loturatzat erabiliko direla aurreikusten da. Egitarau honek 22 jarduera-lerro ezartzen ditu botere publikoek izan beharko litzuketen interbentzio-dinamiketan, eta horiek, ahal den neurrian behintzat, estrategiak zelan eta non eratu ere zehazten dute. Jarduera-lerro bakoitzean bere helburuak aurkezten dira, baita bera garatzeko proposamenen multzoa ere (98 proposamen guztira).

Konproba ezazue orain, zer-nolako planteamendua barneratzen duen egitarau abangoardista honek, hitz-jario liluragarriez baliatuta:

---

1. Egitamu gidari honen 2000ko hamarkadaren hasieran emandako aldaketek oso argi adierazten digute hasiera batean planteatutako helburuen gainbehera, aurrerago azalduko denez.

Planifikazio integratu bat ezarri behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko beste politika sektorial batzuen barruan, ekonomi eta gizarte agenteek epe labur, ertain eta luzera burutu beharreko estrategia nahiz jarduketak aztertu eta zehaztuta. Horrela, baliabide naturalen eta giza baliabideen aprobetxamendu eusgarria gauzatu ahal izango da, eta aprobetxamendu horrek, epe ertain eta luze batera, biztanleen bizi kalitate ona bermatuko du; gainera, *ingurumen baloreak mantendu eta hobetzeko aukera emango du.*

Erraz ondoriozta genezake lur-eremu honen eredu juridiko-politikoaren erro ideologikoak honakoa ezartzen duela<sup>2</sup>: garapen-eredu *mendebaldar kontsumista hegemonikoa* deritzonaren garapen-eredu liberalarekin guztiz kritikoa den eredu juridiko-politikoa.

Euskal lurraldean oso mugatua den *eredu juridiko-politiko berezi* honek natura-baliabideen *kudeaketa arrazionalizatzea*<sup>3</sup> du helburutzat. Lurra, landak eurak barne. Horrenbestez, erraz ondoriozta dezakegu gaur egun indarrean dagoen eredu hegemonikoa eraldatzea bilatzen duen status juridiko publikoa erakundetu dela. Ez gaude asmo-adierazpen soilen aurrean, ez horixe!

Beraz, lege-irizpide kritiko batzuen programaketa estrategikoa guztiz definituta dagoen tokia dugu Urdaibaiko Biosfera Erreserba. Baina horrek ez dio ezer indarrean dauden *gizarte-eraldaketarako tresna* horien eraginkortasunaren gainean, hots, ez digu politika publiko hauen interbentzioen arrakastaren gaineko informazio kualitatiborik eskaintzen. Horien eguneroko dinamiken berri ematen. Horretarako ezinbestekoa da legeen gaineko ikerketa aplikatuak gauzatzea eta zabaltzea, gurean, herrian politika publikoen ebaluaziorako kultura zabaltzearen, tokiko *“governance”* delako horren kalitatea hobetzearen.

Horrenbestez, udalerriz gaindi eraturako lurralde- eta gizarte-plangintzak egiten du Urdaibaiko Biosfera Erreserba garapen iraunkorraren aldeko saioen kokagune aproposa eta, zentzu horretan, Euskal Herriaren etorkizuneko iraupenaren aldeko laborategi bat.

Udalerriz gaindiko status juridiko publiko zoragarri honen egungo bilakaeraz ezer aipatu aurretik, Urdaibaiko Biosfera Erreserban udalerriz gaindiko parte-hartzearen aldeko egituren deskribapena egingo dugu, egitura horien dinamiketan baitago aipatutako araudi kritiko horien eraginkortasuna.

## **2. Urdaibaiko Biosfera Erreserban ezarritako helburu holistikoaren bilakaeran eragiten duten egitura parte-hartzaileak**

Euskal eskualde honetan, beste guztietan bezala eta zientzi politikoetan adituek adierazten duten moduan, *“entorno de gobierno multinivel”* (Joan Subirats) baten aurrean gaude, proiektu abangoardista baten arrakastaz edota porrotaz eztabaidatzeko orduan eta honek finkatutako erronkei dakarkien erantsitako konplexutasunarekin.

---

2. Ikusi: *Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Ingurumenaren interpretazio, ikerketa eta hezkuntzarako erabilera egitamua*. E.J. Gasteiz, 1997.

3. U. Beck-en *“racionalización sobre racionalización”* laburbil zitekeen pentsamenduari estu lotuta dagoen logika juridiko-administratiboa ezarri nahi da Urdaibaiko Biosfera Erreserban.

Urdaibaiko Biosfera Erreserban bere baitan legezko parte-hartzearen egitura eta euren konposaketa honetara biltzen dira: **Zaingo Batzordea**. Berau jarraian aipatzen diren organoek osatzen dute:

a. *Osoko Bilkura*

23 partaide ditu. Lurraren defentsaren aldeko elkarteek ordezkari bakarra dute, beharrezko rol kritiko eta zilegi baten kalterako.

Balio legala eta egikaritze-balioa duten akordioak onartzen dira bertan, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren helburuak lortzearen edo deuseztatzearen hartutako erabaki guztiak<sup>4</sup>, hain zuzen ere.

Kideak hauexek dira.

- Eusko Legebiltzarreko ordezkari bat.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko bost ordezkari.
- Bizkaiko Foru Aldundiko hiru ordezkari.
- Eraginpeko Udaletako sei ordezkari.
- Estatuko Administrazioiko ordezkari bat.
- Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkari bat.
- UNESCOren “Gizakia eta Biosfera” egitarauko ordezkari bat.
- Biosfera-Gebenaldearen azterkuntza eta babeste-lanetan izen ona duten Gebenaldearen esparruko elkarte ekologista eta kontserbazionisteetako ordezkari bat.
- Gebenaldearen esparruko nekazaritza eta basogintza alorreko hiru ordezkari.
- Gebenaldeko Lankidetzak Kontseiluburua.

*“Gebenaldeko zuzendari-artatzailea Osoko Bilkuretara joango da, hitz egiteko eskubideaz bai, baina botorik ez duela”.*

b. *Batzorde Iraunkorra*

Hamanbostero biltzen den batzorde hau da benetan Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren proiektuaren bilakaeran eragiten duen organoa; *donde se corta el bacalao*, gaztelaniazko espresio esanguratsua erabiltzen uzten badidazue.

*Lur ez-hirigarrian* kutsu urbanistikoa duten eraldaketak bertan baimentzen dira, edota, azken 4 urteotan moduan, baserrietan emandako 185 baino goragoko zati-

---

4. Bilkura hauen Aktek jasotzen dituzten iritziak euskal profil anitzen isla dira, ez bairik gabe. Esaterako, bere hasierako bilkuretan, orduko Lehendakariak Urdaibaiko Biosfera Erreserban gertatzen ari ziren ekosistemen kontrako erasoan % 1 bera ere auziperatu ote zen kezka agertzen zuen eta horrela jaso izan zen akta adierazgarri horretan. Beste Akta barregarri batean eta Osoko Bilkuraren “*quorum*” aproposari buruz zihardutela, gaur egun Eusko Legebiltzarreko presidentek, % 20rekin nahiko zela irizten zion orduan. Zinez, demokrata sutsua eta partaidetza sustatzearen aldekoa, bai horixe!

ketak —*expedientes de segregación de finca rústica*<sup>5</sup>— baimendu dituen organoa dugu berau.

Organo exekutibo kezkarri honen kideak hauexek dira:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administraziooko hiru ordezkari, horietako bi ingurumen-organok izendatuko dituenak.
- Bizkaiko Foru Aldundiko bi ordezkari.
- Eraginpeko Udaletako bi ordezkari.
- Zaingo Batzordeko partaide diren gainerako erakunde eta entitateetako ordezkari bat.

*“Gebenaldeko zuzendari-artatzailea Osoko Bilkuretara joango da, hitz egiteko eskubideaz bai, baina botorik ez duela”.*

### c. Lankidetzaren Kontseilua

Organo hau, orain aipatutakoak baino irekiagoa dirudien arren, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eraketa eman zenean ez zen eratu izan eta kultura demokratiko defizitariora baten seinalea dugu hutsune hau. Dena dela, 1995eko urtean lortu zuen bere jaiotza juridiko publikoa.

Hala ere, herritartasun nozioaren inguruko hutsune kultural nabarmena jasozten du bere sorrerako dekretuak: herritar soilei ez zaie inongo ordezkapen-eskubiderik aitortzen, hots, herritar soilek ez dute parte hartzeko inongo eskubiderik.

Bere dinamikaz oso iritzi kritikoak badira ere, —bere sorreratik inongo lantaldetik eratu ez duelako, bere bilkuretara batez beste 6 pertsona joaten direlako...— aitortuta dituen ahalmenak bestelako iritzirako argudioak eman zitzakeen, ostera. Adibidez, Lankidetzaren Kontseilu honen eginkizunen artean hauexek daude:

1. Ordezkatutako sektoreen interesak eta jarduerak eta Urdaibaiko Biosfera Gebenaldeko helburuak eta egintzak era harmonikoan koordinatzeko irizpideak eta neurriak sustatzea.
2. Urdaibaiko Biosfera Gebenaldeko jarduerak garatzerakoan, Lankidetzaren Kontseiluan ordezkatuta dauden erakundeen arteko lankidetzaren sustatzea.
3. Ordezkatutako erakundeen eta Urdaibaiko Biosfera Gebenaldearen artean, denentzat interesgarri diren egintzak antolatzea.
4. Koordinazioa, harmonizazioa, parte-hartzea eta, oro har, Biosfera Gebenaldearen helburuak lortzeko egoki ikusten diren ekimen, proposamen eta iradokizunak planteatzea.

(...)

---

5. Beste garai batzuetan euskal eredu juridikoa berezituaren aldeko aldarrikapenaren oinarria izan den zatiezinezko baserrien lur-eremuak gaur egun deuseztatzen ari garen euskal bereizte juridiko publikoaren amaiera suposatzen du.

Bere aldizkako bilkurak egiten ditu hiru hilerik behin, gutxi gorabehera, Osoko Bilkurak bezalaxe, Biosfera Erreserbako zuzendari-artatzaileak dinamizatu ohi ditu eta ez du bestelako ekarpenik egiten Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren lurralde-eta gizarte-proiektuaren gainbeheraren aurrean.

Horiek horrela, gaur egun, aurretik aurkeztu beharreko hautagaitzan oinarritzen den kidetasunak honelako organo askotarikoa bezain korapilotsua sortu du. Kideek ordezkatzan dituzten erakundeak hauexek dira. Agertzen ez direnak hautagai-tzarako aurkeztu izan ez direlako dira.

- AEK
- Agiri Arkeologia Kultura Elkartea
- Zain Dezagun Urdaibai Fundazioa
- Urdaibaiko Galtzagorriak
- Gernikazarra
- LAB
- CCOO
- UGT
- Nekazal Turismoaren elkarte
- JABEAK
- Granja Eskolen elkarte
- Arrantzaleen Kofradia
- Erlezaintza elkarte
- Portuondoko aisiadirako txalupen elkarte

Azpiatal honekin amaitzeko, Biosfera Erreserban indarrean dagoen udalerriz gaindi eratuta dagoen parte hartzeko egituren gaineko informazio adierazgarria izan eta, agian, euskal kultura parte-hartzailearen inguruan sakontzeko baliagarria izan ahal zaigun beste adibide bat gaineratik azaldu dizuedalakoan, hurrengo azpiatalari ekingo diot.

### **3. Udalerriz gaindiko status juridiko-politiko berezitu abangoardista baten bilakaera kezkagarria**

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren egitamu konplexu eta abangoardista honen adierazleak indarrean dauden lurralde- eta gizarte-antolaketa- tresna estrategikoak badira ere, errealitatean tresna hauek duten eraginkortasuna aztertzea ezinbestekoa zaigu.

Nahiz eta marko juridiko-publikoa *biribildua* izan, hots, legeak ezartzen dituen helburu nagusietatik abiatuta, lurralde-antolaketa epe luzerako ezartzen dituen lurralde-erabilera zehatzetatik igarota, tresna estrategikoak ezartzen dituen 22 jarduera-lerro eragiteraino, politika publiko baten dinamikaren koherentzia-maila aztertzekotan, hau zaigu beharrezkoa: ezarri nahi den lurralde- eta gizarte-eredu iraunkor horren adierazle makrosistematiakoak diseinatzea.

Hurrengo hauek bilakaera bat azaltzeko esanguratsuak direlakoan:

### **3.1. Lurralde-eredu horrek sustatzen duen bioaniztasunaren ondareari eragiten diona**

Basogintza da gaur egun eta kuantitatiboki Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren bioaniztasunaren ondarea indartu ala kaltetu dezakeen politika publiko garrantzitsuena, horrek gizartean joka dezakeen rol soziokulturala kontuan izan gabe eta, batez ere, garrantzi hau ez zaiolako inola ere aitortzen. Tamalez.

Hortxe ditugu konifera exotikoen presentzia kontrolatua —ez-kontrolatua ere existitzen baita—, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren baso-lur eremuaren % 65,03 hartzen duena, hots, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren lur-eremu osoaren % 42'71, hain zuzen ere. Eukaliptoak lurraldearen % 7,79 hartzen du, baso-lur eremu osoaren % 11'86 hain zuzen ere.

1993. urtean, 242/1993 Dekretuak, abuztuaren 3koak, *Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Erabilera eta Kudeaketarako Egitamu gidaria* onartzen duenak eta baso-sistemen kudeaketan hartu beharko liritekeen irizpideak ezartzeko orduan, berea egiten zuen txosten teknikoan garbi uzten zuen konifera exotiko honen landaketa intentsiboek bioaniztasunarekin duten erlazio negatiboa.

Gaur egun arazoak berean jarraitzen du, edo hobeto esanda, are txarrago, berriki onartu den egitamu gidari horren aldaketek ahalbidetzen dituztenak kontuan hartzen baditugu:

2003ko otsailaren 11ko Dekretuaren arabera, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eta Kudeatzeko Egitamua aldatzeko zena, 1993koan landaketa exotiko intentsibo hauek eraikinetatik 100 metroko muga errespetatu behar bazuten ere, gaur egun muga hori are gehiago murriztu da Franco garaiko pinudien landaketaren aldeko Lobbyaren gozamenerako, orain 60 metro bakarrik errespetatu behar dute, landazabal atlantiarraren kalterako.

### **3.2. Lurralde-eredu horrek sustatzen dituen lurralde-erabilera historikoei eragiten diona**

Legeak babestutako lur ez-hirigarriaren desaiikapenek, hiritartuak izan ahal izateko, baserrien eta landazabal atlantiarraren gizarte-funtzioaren eraldaketa kezkarria dakarte.

2003ko uztailaren 22ko Dekretuak<sup>6</sup>, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eta Kudeatzeko Egitamua aldatzeko denak, Kanala auzoaren 28 hektareako lur ez-hirigarriaren desaiikapena onartzen du, jatorrizko legearen arimaren kontra joanez. Inork pentsa lezake horrelako desaiikapenak ingurumen-balioak mantentzeko edo suspertzeko helburua duenik?

Erabilera berri hauek zuzeneko eragina dute ezarri nahi den gizarte-ereduan, non etxebizitzaren arazoa zentzuzko parametroetan bideratzea bilatzen den, baina horrelako dekretu “kezkarriek” —bezain ilegalek— etxebizitzaren arazoa

---

6. Bi aldaketa 6 hilabeteko epean! Praktika neoliberal garbi baten aurrean gaude! *Soft law* nozioa gurean da jada.



areagotzea baino ez dute lortzen. Horrelako araudi-aldaketek bigarren luxuzko etxebizitzaren ugalketarako pentsatuak izaten baitira.

### **3.3. Lurralde-eredu horrek sustatzen duen ondare kultural eraikiari eta arkeologikoari eragiten diena**

Ondare kultural eraikiaren eta arkeologikoaren desagertzea guztion ahotan den arazo sentikorra dugu.

2003ko urteko azaroan Bermeon Ondare Kulturalari buruzko jardunaldiak antolatatu ziren eta hor, zonaldeko J.C. Lopez Quintana arkeologoak datu kezkarriak azaldu zizkigun.

Aztarnategi katalogatuen % 28k baino ez du babes juridikoa eta horiek duten babes fisikoa eta seinalamendua % 6ra baino ez da heltzen. Besterik esan behar al da gure ondareari zor diogun begirune publikoaz ohartzeko eta bestelako oinarri kulturaletan garatu nahi dugun gizarte eraikitzeke?

## **4. Konklusioak**

Merezi al du, bada, diru-kopuru itzelak ordaintzea inoiz beteko ez diren legedi eta araudiak tramitatzeko eta ezartzeko eta, egunak pasatu ahala, Dekretuen bidez Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren izate berezituaren arrazoiak desagerraraziz joateko?

## **5. Proposamena**

Eremu logistikoak dituen aukerak kontuan izan beharko lituzkete Euskal Herri mailan antolatutako Lurraren defentsarako talde orok, sinbolikoki behintzat, eremu juridiko-publiko pribilegiatu hau desagertu baino arinago bere *hub efektuaz* hausnartu beharko genuke.

## **6. Amaiera**

### **Ikerketa-ikasketa eremua**

Lurralde-antolaketaz ezagutzen den esparru juridiko orokorra izan da interesa sortu didan ikerketa-hausnarketarako diziplina juridiko-publiko bakarra, eta zehazki, bere, Lurralde Antolamenduaren Ordenamendu juridikoaren egikaritze-mailak (*implementation studies*) aztertzea ezinbestekoa izan zait, irakurrita bainuen gizarte-ereduek lurralde-ereduaren eraginpean garatzen zituztela beren utopia gizatiarrenak, eta, horretan, ez nuen inola ere lekukotasuna eta parte hartzeko aukera galdu nahi.

Lurralde-antolaketaren arautegi juridiko-politiko horiek sostengatzen dituzten politika publikoen egunerokotasuna aztertu nahi izan dut, bere testuinguruaren baldintza soziokulturalak kontuan hartuz, gero, beharrezko zitzaizkien kritika apurak sendo eraikitzeke eta bideratzeko asmoz.

Erabilitako ikerketa-metodologiek eta berauek ahalbidetutako *informazio kualitatiboaren* erabilerak emango zidaten gero sendotasuna.

Horrenbestez, kritika eroso ahalbidetu didan lurraldea da Urdaibaiko Biosfera Erreserba, azken finean. Bere lurralde-antolaketari lotutako arautegiak, Biosfera Erreserba moduan lege-izendapenak dakartzan konpromiso juridiko-politikoen azpiegitura ikertu nahi izan dut bere eraginkortasuna eta lurralde eta gizartearen eraldatze dinamikaz ohartzekotan. Helburuak bilatzen dituzten arautegi eta araubide zuzenek osatzen baitituzte konpromiso politiko horiek.

Araudi-konpromiso hauek iragarritako helburuak lortzeko, egikaritzeko behar diren estrategia-ezarpenen negoziazio-prozesu parte-hartzaileak ere ikertu izan ditut, gurean udalerriz gaindiko politika publiko aurrerakoia egiteko estiloari erreparatuz eta euskal politikagintzan, *Klan-en politika* nagusi dela oraindik ondorioaraziz; orain ehun urte bezalaxe.

Nahiz eta ideia abangoardistak erakundetuta egon, eta horrenbestez, Urdaibaik hartzen duen sistema biogeografikoaren aniztasunaren alde antola daitezkeen jarrerak baimenduta egon, zilegitasun juridiko osoa dutelako, ez dute, ostera, zilegitasun politikoaren emankortasuna lortzen, hots, ez dituzte babestutako naturabaliabideen gainean kontsumo-modu mendebaldarrak ekiditen. Hortxe ditugu Urdaibaiko lurralde- eta gizarte-ereduen gaur egungo joera kezkarriak.

Udalerriz gaindiko *partaidetza publikoa* delakoaren joera eta dinamika antzua kontuan dugu eta komunikazio honetan agerian geratuko da. Hortxe dugu, baita, esaterako, kultura-ondarearen eguneroko kudeaketa kezkarria, basogintza exotiko eta monokultiboan oinarritutakoa bezain kezkarria, bioaniztasunaren kontrako politikaren hedapena suposatzen duen heinean, eta, azkenik, baserrien gaineko hiri-espekulazioaren minbizia ere aipatu behar da.

Gaur egun, Urdaibaiko Biosfera Erreserba Euskal Herriko garapen iraunkorren paradigmaten adar zenbatezin guztien politika publikoen probalekua dela esan dezakegu. Indarrean duen udalerriz gaindiko arautegi programatikoa kontuan hartuz gero, gizarte-erlaketarako laborategi bat ere bada Urdaibai. Baina, lasai, legearen eraginkortasunaren nondik norakoak begiztatuta erraz ikusi ahal da gaur egun zein den asmo eder horien guztien muina: kea besterik ez.

## Bibliografia

- Aguilar, S.; Font, N. eta Subirats, J. (editoreak) (1999): *Política ambiental en España- Subsidiariedad y Desarrollo sostenible*, Tirant Lo Blanch, Valentzia.
- Allende Landa, J. (2000): *Medio Ambiente, Ordenación del Territorio y Sostenibilidad*, UPV & UIM, Bilbao.
- Azpitarte, J. (2000): "Afección de la declaración de Espacios Naturales Protegidos a la actividad forestal: el caso de Urdaibai", Garapen jasangarriari buruzko Urdaibaiko VI. jardunaldiak, Gobierno Vasco & UNESCO ETXEA, Bilbao 2001.
- Beck, U. (1997): "De una teoría crítica de la sociedad a una teoría de la autocrítica social", *Revista Diálogo Científico*, **6**, **1**, 9-30.
- Belza, J. (1999): "El Plan de armonización y desarrollo de las actividades socioeconómicas de Urdaibai; características del proyecto; diagnóstico de partida", Garapen jasangarriari buruzko Urdaibaiko V. jardunaldiak, Gobierno Vasco & UNESCO ETXEA, Bilbao 2000.

- Gonzalez Ordovas, M. J. (1998): “ Espacio y tiempo: la percepción como metodología” *Transformaciones del Estado y del Derecho Contemporáneos- Nuevas perspectivas de la Investigación Socio-jurídica* , Oñati IISL & Dykinson.
- Harms, H. (1999): “La Participación Ciudadana como Mecanismo de la Educación Medioambiental” (txostena). Workshop on “ Legislación Ambiental: Formulación, Actores, Intereses y Procesos de Implementación”] Oñatiko IISL, 1999ko uz-tailaren 12 eta 13an.
- Lopez Quintana, J. C. (2003): “Inventario del Patrimonio Cultural Prehistórico de Urdaibai”, Garapen jasangarriari buruzko Urdaibaiko X. jardunaldiak, Gobierno Vasco & UNESCO ETXEA, Bilbao 2004.

